



2024 Txostena



www.mundukide.org



Iñigo Albizuri Landazabal
Mundukide Fundazioko lehendakaria

LEHENDAKARIAREN MEZUA

Lagun maiteak,


Badira 25 urte pasa, Mundukide abiatu genuela. Mundura zabaltzeak gure bizi-baldintzak hobetzeko bakarrik ez, elkarlanerako eta partekatzeke ere balio behar zuela sinetsita. Elkartasuna, justizia eta pertsona guztientzako bizitza duinarekin dugun konpromisotik abiatuta.

Milioika dira oraindik baldintza oso kaxkarretan lan egiten duten pertsonak. Tresnak, teknologia, merkatu edo laguntza-sareak oso apalak direnean, ahalegin handiena ere ez baita nahikoa. Horregatik, dihardugu Mundukiden, bertatik bertara, euren egunerokoa eraldatzen ari diren pertsona eta taldeekin elkarlanean. Aukera partekatu, iraunkor eta esanguratsuen sorrera sustatzen. Horretarako merkatu berriak bilatu, teknika berriak erabili, berrinbertsioa sustatu, antolakuntza kolektiboa indartu eta tokiko ezagutzari balioa emanaz. Lana ez dadin izan etekinik gabeko sufrikarioa, ongizate eta duintasunerako bidea baizik.

2025ean, Kooperatiben Nazioarteko Urtea ospatzen dugu eta kooperatiba-eredua aldarrikatzeko aukera da: demokratikoa, erresilientea, pertsonak helburu eta sustraitzen den tokian emaitza nabarmenak ematen dituena.

2024. urteko memoria honetan horren adibideak aurkituko dituzue. Eginahala eta nekea bai, baina baita itxaropena, berrikuntza eta etorkizun partekatua erakusten dituzten lanak. Eta guk bezala, garapen-eredu desberdin bat egingarri dela uste duzuen hainbeste pertsona eta erakunderi esker gauzatu direnak.

Milesker guztioi zuen konfiantza, eskuzabaltasun eta konpromisoagatik. Lankidetzaz berezkoa dugun ezaugarria bakarrik ez, guztiok amesten dugun mundu bidezkoagoa eraikitzeke estrategia ere bai baita.



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Iturriotz 27- 1º 20500 Arrasate-Mondragón • Tel. 943 772010

mundukide@mundukide.org • www.mundukide.org

CIF: G20673604 / D.L.: SS 405-2016 / Edizioa: Mundukide Fundazioa



MISIOA

Gure eginkizun nagusia lankidetzeta-programetan elkarlanean jardutea eta proiektu solidarioak sustatzea da, pertsonen eta tokiko erakundeekin batera lan eginez. Esperientziak, baliabideak eta egiten jakitea partekatzen ditugu, inplikaturako alderdien garapen autogestionarioa eta erabatekoa sustatzeko. Horretarako, lan kooperatiboaren elkartasuna bultzatzen dugu, Mundukideren balioak eta printzipioak oinarri eta gidalerro hartuta.



balioak

LANA

Ekintza eraldatzailatzat hartzen dugu "lana", aldaketa-ekintzatzat, garapena lortzeko bidetzat. Mundukiden uste dugu lana balio bat dela, berez, eta kapitalaren gainetik dagoela.

ELKARTASUN UNIBERTSALA

Mundukideko parte-hartzaileon lanaren oinarria elkartasuna da, bai ekonomia solidarioko beste esperientzia batzuekin, bai demokrazia sozialaren alde diharduten guztiekin, azken horiekin bake-, justizia- eta garapen-helburu berberak partekatzen ditugula.

GIZARTE-ERALDAKETA

Mundukideren asmoa eraldaketa lortzea da, pertsonak eta gizarteak bizitzekoagoak eta autogestionatuagoak izan daitezen esparru guztietan, baita genero-harremanen esparruan ere; ikuspegi horretatik, autonomia funtsezkoa da pertsona, kolektibo eta herri bakoitzak zer gizarte-eredu nahi duen erabaki dezan.

NOREKIN EGITEN DUGU LAN

5	HERRIALDE Brasil, Ekuador, Kolonbia, Etiopia eta Mozambique	18	KOOPERATIBA	105	TALDE ETA ELKARTE	15.000	NEKAZAL FAMILIA
----------	---	-----------	--------------------	------------	-----------------------------	---------------	---------------------------

LANTALDEA

58	12 KOOPERANTE	79	BEHIN-BEHINEKO KOLABORATZAILEAK
	46 LEKUKO LANGILE		

LAN ILDOAK

4	1 AHOLKULARITZA KOOPERATIBOA
	2 PERTSONEN TREBAKUNTZA
	3 NEKAZARITZA GARAPENA
	4 LAGUNTZA TEKNIKOAK

KOOPERATIBEK ETA NEKAZARIEK SORTUTAKO IRABAZI GEHIGARRIAK

2.500.000€



BRASIL • KOLONBIA • EKUADOR



Brasil

Mundukidek Brasilen duen programaren helburua talde zaurgarrien egoera sozioekonomikoa hobea egitea da. 'Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra' (MST) elkartearekin batera egiten dugu lan, haren baitan dauden kooperatiben garapena lagunduz. Gaur egun, hiru lan ildo nagusitan egituratzen da programa: Brasil hegoaldean dauden

kooperatiben ekoizpen, merkataritza eta antolaketa gaitasunak indartzea. Brasil iparraldean bost kooperatiba-agroindustria berri sortzea. Brasil guztian zehar kooperatiben ekoizpena merkaturatzen duen denda sare zabala sustatzea.

Kolonbia

Kolonbian bi programa ditugu martxan: Batean, Kolonbia hego-mendebaldean hondakinak jaso eta birziklapenerako sailkatzen dituzten elkarteekin ari gara lanean. Prestakuntza eta bestelako laguntzen bidez elkarteek kudeaketa hobea egitea eta ofizio berriak sortzea dugularik helburu.

Bigarren programan emakume nekazari indigenekin ari gara elkarlanean. Haien familia ekonomia indartzeko asmoz. Horretarako, nekazaritza ekologikorako teknikak eta hurbileko merkaturatze bideak sustatzen ditugu. Nariño depar-

tamenduko sei lurralde indigenetan eta Gran Tescual-eko Kabildo Indigenarekin ari gara elkarlanean.

Ekuador

Mundukidek Ekuadorren duen programaren helburua garapen sozioekonomiko jasagarria bultzatzea eta Iparraldeko muga eta Amazonian landa erakundeek elkartegintza indartzea da. Gaur egun, programak bi lan ildo ditu. Ildo nagusia, Toisan Korporazioarekin lankidetzan, 10 talderekin ari gara lanean; ekintzaile gehienak emakumeak dira, eta produkzio, merkataritza, enpresa eta antolaketa gaitasunak lantzen ari gara. "Kutakachi" merkaturatze sare amankomuna sortu da, salmentak handitzeko eta kanpoko merkatuetan iristeko. Bigarren ekintza-ildoan Amazoniako nekazari txikien elkarte batekin ari gara lanean, haien gobernagarritasuna eta plangintza sendotuz.

MSTKO KOOPERATIBENTZAKO SALMENTA BIDE BERRIAK



Brasilen, 40 milioi umek otorduak eskolan egiten dituzte, eta horretarako elikagai erosketa, lekuan lekuko gobernuen ardura da. MSTko kooperatibek udaletxe txiki eta ertainetan kontratu batzuek lotzen zituzten, baina São Paulo bezalako hiri handietako lehiaketatan sartzeko zailtasunak zituzten. Bere kooperatibei lehiaketa handi horietan laguntzeko MSTk 2011ean 'Escritório de Comercialização Institucional (ECI)' sortu zuten, baina aurrera egiten ari ez zirela ikusirik, 2017an Mundukideri laguntza eskatu zioten.

Bost urtez (2017-2021) Mundukideko kooperante bat EClren lan taldean txertatuta egon zen, eta lehiaketan prozesu guztia hobeagotzeko hainbat pauso eman zituzten: Mugimenduko kooperatiba gehiago erakarri eta produktu eskaintza zabalagoa osatu; eskaintzaren berri emateko lekuan lekuko gobernuak bisitak egin; arau burokratikoetarako prestaketa; kontratuak lortutakoan kooperatibekin ekoizpenaren planifikazioa egin; elikagaien banaketarako logistika hobeagotu; kooperatibetako kideak erregistratu eta produktuen trazabilita-

tea antolatu; etab.

Eta emaitzak oso onak izan ziren. 2017 aurreko hiru urteetan ECIk, batez beste, miloi bat euro inguruko salmentak izan zituen (ia guztia kooperatiba bakar batek). 2021 ondorengo hiru urtetan berriz, batzuek bestekoa, 15 milioi eurotako izan da (13 kooperatiba eta 30 bat produktu desberdin: arroz organikoa, esnea, gazta, babarruna...).

Dena den oraindik askoz gehiago egin daiteke, izan ere lekuan lekuko gobernuak, urtero 850 milioi euro inguru bideratzen dituzte eskola elikadurarako erosketetara. Nekazari txikien bideragarritasun ekonomikorako oso aukera handia da.

Horregatik Mundukideren Brasilgo lantaldea orain ere MSTko kooperatibekin elkarlanean ari da beste estatu batzuetan ere São Paulokoa bezalako ECI gehiago sustatzeko asmotan.

KOOPERATIBEN INDARTZEA



Mundukide 2007az gero, ari da Brasilgo 'Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra (MST)'rekin elkarlanean. MSTk berrogei urte daramatza erabiliak ez diren lurjabe handien lur sailak okupatu, legeztatu eta berauetan Brasilgo familia behartsuentzako nekazaritzatik bizitzeko aukera sortzen. Eta nekazal ekoizpena abiatu, antolatu eta garatzeko bide horretan gauzatzen da MST eta Mundukideren arteko elkarlana. Lan honen adibidetako bat da COCAVI kooperatiba eta Mundukide arteko elkarlana:

1997an MSTko kide ziren familia batzuek erabilia izaten ari ez zen lur sail bat okupatu zuten. Borroka luze bat eta gero, azkenik 2004ean 550 familiarentzako 13.000 hektareatako lursailaren jabegoa lortu zuten. 2009an familia haietako batzuek COCAVI kooperatiba sortu zuten. Eta 2017an Mundukideren laguntza eskatu zuten. Elkarlanaren helburua kooperatibaren kudeaketa hobeagotu eta bazkideen garapen sozioekonomikoa bultzatzea zelarik.

Orduraz gero, kooperatibako zuzendaritza eta Mundukideko kooperanteak elkarrekin aritu dira lanean: Elkarrekin egin zuten kooperatibaren diagnostikoa, merkatu aukera berriak aurkitu dituzte, kudeaketa administratiboan eta kontularitzan hobekuntzak egin dituzte, bi agroindustria berri eraikitzeko Brasilgo gobernuaren dirulaguntzak lortu dituzte, negozioak garatzeko banku kredituak lortu dituzte,

salmenta kanal berriak zabaldu dituzte... eta lan guzti horren ondorioz, 2019 eta 2023 bitartean kooperatibaren salmentak eta kooperatibak nekazariei egiten dizkien erosketen balioa ere ia bikoiztu egin dira eta une honetan kooperatibak 250 bat familiari Brasilgo gutxieneko soldata adinako dirusarrera bermatzen die. Hori bakarrik ez. Kooperatibaren sendotasun ekonomikoa hobeagotuta, bazkide eta hornitzaile diren familien ekoizpena hobeagotzeko albaitari talde gaztea osatu ahal izan dute. Bai eta agronomo talde bat ere. Gehienak asentamentuko familiatako umeak dira eta etxaldeetako esne, soja, arrautza eta bestelako ekoizpenak hobeagotzen laguntzen ari dira. Guzti hauek aurrerapauso esanguratsuak izan dira eta oraindik falta den lana egiteko indarra ematen digu, bai COCAVIN bai eta Mundukiden gabiltzanoi ere.

ELKARRENGANDIK IKASIZ



2019. urtean mundu mailan ongarri kimikoek izan zuten prezio gorakada handiak bultzatuta, Kolonbiako Nariño eskualdeko nekazariak, Kolonbiako Agromindalae elkarte eta Mundukidek nekazarien ekoizpenaren errentagarritasuna hobea goetzeko elkarlana abiatu genuen.

Lanaren ardatz nagusia ongarri kimikoek eragindako gastua murriztu eta agroekologian oinarritutako alternatiba iraunkorrak garatzea zen, eta horretarako konpost ekoizpena sustatzeari ekin zitzaion.

Orduz gero, konpost-a egiteko 'pilla

estatiko' deituriko teknika landu dute, zeinaren bidez, zirin edo hondakinak mugitu gabe konpostatzea lortzen den. Konposta sortzeko lehengai nagusi bezala oilo haztegi-tako zirina darabilte eta lana inguruko nekazarien artean auzolanean egiten dute.

Konposta sortzeaz gain, izurrite eta gaitzei aurre egiteko teknika agroekologiko berriak sustatu eta merkaturatze bide berriak sortzen ari dira.

Lau urte hauetan, emaitzarik onenak eman dituen ongarri organikoaren sustapena izan dela dirudi. Izan ere lan ildo honek erakarri du parte hartzaile gehien:

2024ean 250 familiatik gora aritu dira 24 taldetan eta 215 tona konpost sortu dituzte. Nekazarien esanetan, ongarri kimikoetan egindako gastua gutxitu bakarrik ez, lur-rean eta laboretan hobekuntzak nabaritu dituzte.

Mundukide Ekuadorreko Intag eskualdeko nekazari elkarte batzuekin ere lanean ari da 2020az gero eta Kolonbiako emaitza onak ikusirik, Intageko nekazari-iei Nariñokoen lana ezagutzeko aukera eman zaie.

Hala 2024ean, Intageko talde bat Nariñon izan zen, Kolonbiako nekazari-ek konposta egiteko darabilten teknika ezagutzen eta ondoren, Kolonbiako Agromindanae elkarte-koak Ekuadorreko Intag bailara bisitatu zuen, Kolonbian ikusitakoa martxan ipintzen laguntzeko. Bi taldeak trukearekin pozik agertu dira eta ondorengo urteetan lan ildo berri bat zabal daitekeela dirudi.

GURE LANKIDETZA EREDUA



Garapenerako Lankidetza era desberdin askotan egin daiteke. Proiektu batzuetan gauzak ematen dira. Beharrean dauden pertsonak sailkatu eta gauza desberdinak ematen zaizkie: zuri janaria, zuri arropa eta zuri deus ere ez, ez baitituzu nire irizpideak betetzen. Lankidetza mota horrek eskubideen diskurtsoarekin jantzita ere, ez du burujabetza sustatzen.

Beste proiektu batzuek ideiak eraldatu nahi dituzte. Tradizionalista direlako, mentalki kolonizatuta daudelako edo hezkuntza askatzailerik jaso ez dutelako, okerreko ideak dituztelakoan haien pentsaera aldatzen saiatzen dira. Baina boteretsuak be-

hartsuari zer pentsatu behar duen agintzeak, burujabetza ez, menpekotasuna eta sarri ernegua ere sustatzen ditu.

Beste bide bat, aukerak sortzea da. Pertsonak gaur egun egiten ez dituzten gauza berriak edo gauzak beste modu batera egin ahal ditzaten aukerak sortzea. Aukera berri bat ez, hainbat aukera desberdin sortzea. Eta ez guztia egina eman. Eta ez bestelako pizgarriekekin jendea erakarri. Pertsona edo talde bakoitzak erabaki behar du aukera horietakoren zein baliatu (edo batere ez baliatzea). Eta horretarako ekarpen esanguratsuak egin beharko dituzte. Eta ondorioz, lortzen dutena, edozer dela ere, beraiena izango da. Erabat. Inori zor ez diotena. Euren erabaki eta lanaren emaitza.

Proiektuak bestalde, orojakitun ez dela, besteen zerbitzura dagoela, lehentasunak haiek finkatzen dituztela onartu behar du. Parte hartze handiena erakartzen duten aukerak indartuko ditu, parte hartzerik erakarri ez dutenak bertan behera utzi, eta beti aukera berriak sortzen jarraitu.

Urte hauetan hainbat lan era desberdinekin saiatu ondoren, pertsona, talde eta herrien burujabetza eta garapena sustatzeko modurik eraginkorrena aukera berriak sortzea denaren ondoriora iritsi gara eta horretan saiatzen gara.

MOZAMBIKE

Mundukidek hoge urte pasa darama Mozambique iparraldeko nekazari-familiekin elkarlanean.

Mozambique munduan giza garapen eskasen duten herrialdeetako bat da. Txirotasuna, sakona eta orokortua da. Gehiengoa nekazaritzatik bizi da, lan guztia eskuz egiten da eta oso etekin apala dute. Iparraldean, Programak lan egiten dueneko Niassa eta Cabo Delgado probintzietan, nekazari familiek lortzen duten uztaren urteko balioa 300 bat eurotako besterik ez da. Programaren helburua nekazal familiek euren lanari etekin hobea atera, eta diru-sarrerak, bizi-baldintzak eta burujabetza hobegotzea da. Horretarako merkatu, produktu eta teknika berriak bilatzen dira, laguntza teknikoa eta inputak jartzen dira familien eskura, eta erosleekin harremanak sortzen dira.

Programak hainbat merkatu-produktu-teknika aukera ezberdinen ekoizpen-salmenta prozesu guztia laguntzen du. Nekazal familia bakoitzak erabakitzen du uneoro zer labore egin, zer teknika erabili, zenbateko lur saila erabili, zenbateko inbertsioa egin edo eta uzta noiz eta nori saldu.

Eta programa nekazarien aukeretara egokitzen da. Nekazari askok lagungarrien zaiela erabaki duten bideak zabalduz, interes gutxi sortu duten bideak utzi eta etengabe bide berriak bilatuz. Programaren muina aukera berriak aurkitu eta eskaintzea da, baina nekazariena dira erabakia, lana eta irabazia.



Azkenik, aipagarria da programa erabat dagoela lekuko gizartearen txertatuta: lantalde osoa landa eremuan, nekazarien ondoan bizi da, langile-taldearen %90 mozambikarra da eta lan guztia lekuko nekazari elkarte, erosle, hornitzaile, garraio-lari eta erakunde publikoekin elkarlanean egiten da. Eta modu honetan. Nekazarien alboan egonda, epe luzeko konpromisoarekin, aukera egokiak sortu eta nekazarien erabakiei jarraituz, urtetan zehar programan 30.000 nekazal familietatik gora parte hartu dute eta programak sustatutako aukera berriak baliatuz gaur egun urtean 6 milioi euro inguruko dirusarrera gehigarriak lortzen ari dira.

EGITURAZKO ALDAKETARAKO ESTRATEGIA



Mozambiken landa-eremuko txirotasuna orokorra eta sakona izateaz gain, zitalki egonkorra ere bada: Nekazariak tresna hobe faltan eta uztaren prezio txikiak direla eta ez dute ekoizpena handitzen; uztak txiki eta oso sakabana-tuak izateak erosketa-logistika oso zail

egiten du eta ondorioz erosleek prezio txikiak ordaintzen dituzte; dendariek ez dute tresna hoberik saltzen, oso nekazari gutxi baitute haiek erosteko gaitasuna; etab. Eragile guztiak (nekazariak, erosleak, hornitzaileak eta gobernua) kopuru, produktibitate eta errentagarritasun txikiko egoera maltzur batean harrapatuta daude.

Zer estrategia du programak egoera hori aldatzeko?

Lehenik eta behin prozesu guztian zehar ari gara nekazariekin batera: merkatuak zer eskatzen duen, lana errazteko teknikak, uztaren salmenta, etab. Eta nekazariekin bakarrik ez, uzta erosleekin, sargai saltzaileekin edo eta gobernuarekin ere lan egiten dugu.

Arlo guztietan (ekoizpena, salmentak, antolaketa...) saiatzen gara hobekuntzak lortzen, arloetakoren bat atzean geratuz gero eraldaketa prozesu guztia etengo bailuke. Eta aldaketa guzti ho-

riek parte hartzaile desberdinentzako onuragarriak izan behar dute hasieratik. Nekazariak bakarrik ez, merkatariek ere ez baitute emaitzarik ikusi gabe urte luzetan inbertsioei eusteko ahalmenik.

Azkenik pertsona gutxi batzuek aurrerapen handia egitea baino pertsona askok pixka bat aurrera egitea lehenesten da. Taldea txikia denean, kanpo laguntza amaitutakoan, testuinguruak berriro taldea irentsi eta atzera egiteko arriskua handia baita.

Modu horretan lortu dugu adibidez, Majuneko distrituan (8.000 familia) sesamoa ezezagun izatetik, biztanleria guztiaren ia erdia sesamo ekoizpenean aritzera, edo eta lehen urteetan produktibitatea hektareako 250 kilo izatetik gaur egun 450kg izatera pasatzera. Eta gaur egun, funtzionarioen soldaten atzetik distritu osoko bigarren diru-sarrerara izatera.

NOLA HASTEN GARA LEKU BERRI BATEAN?



2022an programa Maua distritura zabal-
tzeko aukera aztertzea erabaki genuen,
honek bai baitzituen abantaila batzuek:
lehen ere lanean ari ginen distrituetatik
gertu; egoera sozio ekonomiko, geogra-
fia eta klima antzekoak; hizkuntza ber-

dina eta nahikoa biztanleria (88 mila).
2023 hasieran, gobernuaren oniritzia
lortuta, Mauara bidaiatzen hasi ginen.
Nekazari, merkatari eta gobernu
funtzionarioei egindako bisiten bidez
zer ekoizten zuten, zer teknikak zera-
bilzkiten eta azken urteetako distrituko
uzta osoaren tamaina eta ordaindu
ziren prezioen berri jakin genuen.
Noski, elkarrizketa haietan galde-
rak egin bakarrik ez, gure aldetik ere
azken urtetan Marrupa, Balama edo eta
Majune distrituetan egindako lanen
eta lortutako emaitzen berri ere eman
genien. Eta uztailean uzta saltzeko ga-
raiean, lankide bat izan genuen beha-
keta lanetan eta uzta salmentaren ahalik
eta datu zehatzenak jasotzen.

Ondorio nagusia zera izan zen: Ma-
rrupako distrituaren oso antzekoa izan-
nik ere, labore garrantzitsu batzuetan,
teknika eskasaren ondorioz, produkti-
bitatea Marrupakoaren erdia bakarrik

zela eta ondorioz, programak Mauako
biztanleriaren egoeran hobekuntzan
nabarmenak lortu ahal behar lituzkeela.
Erabakia hartu, lantaldea bizi eta lan
egiteko etxe batzuek bilatu, moto bi
eta beste tresna gutxi batzuek erosi eta
urrian lanean hasi ginen. Aurreko hila-
beteetan lortutako elkar ezagutzak na-
barmen erraztu zuen lanen hasiera eta
2024ko uztailean saldu da programaren
laguntzaz egindako lehen uzta. Parte
hartzea ugaria (700 familia) eta ona izan
da. Urte honetako emaitzak ez ditugu
oraindik programaren emaitza bezala
kontatu. Helburu nagusia harremanak
sortzea zen eta urte honetako datuak
erabiliko ditugu hasierako neurketa gisa.
Hots, ondorengo urtetan lortuko diren
uztak 2024koarekin alderatuko ditugu
programak benetan nekazarien ekoiz-
pen eta diru-sarreretan izaten ari den
eragina ezagutzeko.

KOOPERANTEAK: FUNTSEZKO ZUBIA GARAPENERAKO LANKIDETZAN

Mundukide garapenerako gobernuz kanpoko erakunde bat izanik, behar handian bizi diren giza-taldeekin batera egiten dugu lan. Eta gure lanaren funtsezko elementua dira kooperanteak.

Lekuan bizi eta zuzenean beharrean bizi diren gizarteekin lan egiten dute, horrek tokiko egoera eta beharrak hobeto ulertzea ahalbidetzen duelarik. Gainera, gure gaitasun eta mugak ere azaltzen dizkiete, bien arteko zubi-lana eginaz.

Kooperanteen ekarpen nagusia elkarbizitza eta elkarlanaren bidez berrikuntza eta esperientzia trukea sustatzea da. Aldaketa prozesuak bultzatzeko ezinbestekoak baitira ikuspegi, ezagutza edo eta teknika berriak.

Kooperante izatea ez da erraza, senide eta lagunak atzean utzi eta oso desberdina den errealitate batetan txertatzea erronka mardula izan ohi da. Eta behar gorria dagoen lekuetan bizimodua ez da erraza edo atsegina izan ohi. Hala ere, euren ekarpena funtsezkoa da erabat eta horregatik aitortu eta eskertu egin nahi dugu.

Kolonbia



Asier Elorza Ugarte
(Nariño)



Iker Cabrejas De la Torre
(Nariño)



Jose Luis Lejardi Bernaola
(Cali)

Brasil



Julio Martínez Arijá
(Minas Gerais)



Natxo de Vicente
(Rio Grande do Sul)



Itziar Aranburu Agirre
(Ceará)



Andrea Antón González
(Ceará)

Mozambike



Elena Ramos de la Cruz
(Niassa)



Anna Sanz Prieto
(Niassa)



Lidia Moreno Jorge
(Niassa)



Maria Olivera Martín
(Cabo Delgado)



Xabi Garabiota Imatz
(Niassa)

Etiopia



Fabrizio Graglia
(Oromia)



Yon Arruti Chasco
(Ibarra)

Ekvador

MUNDUKIDE GARA

Enpresa
eta kooperatiba
laguntzaileak



Erakunde
laguntzaileak



Erakunde publiko
laguntzaileak

Mundukide erakunde
hautetako kidea da 2024
urte bukaeran:



SENTSIBILIZAZIOA



Huhezinema

Huhezinemaren Mundukide Sariaren 18. edizioa hutsik geratu da, jasotako lanen zinema-kalitatea bikaina izanda ere, ez baitzuten eskatutako gaia lantzen.

Mundukide Sariak gaur egungo munduan dugun lekuaz hausnartzera gonbidatzen gaituzten lanak aitortu nahi ditu. Europar gisa, zer rol jokatz

dugu planetan bizi garen zortzi mila milioi pertsonen artean? Aberrastasunari, botereari, ekonomiari, kulturari, subiranotasunari edo ingurumen-inpaktuari dagokionez, zer egiten ari gara eta zer ez dugu egiten? Zer ondorio dituzte gure ekintzek edo ekintza ezak munduko gainerako herrialdeetan? Nola laguntzen edo oztopatzen ditugu guztiontzako garapena eta giza eskubideak?

Mundukide Saria, gure mugetatik haratago begiratzeko, geure burua zintzotasunez zalantzan jartzeko eta pertsona guztientzat mundu bidezkoago, solidarioagoa eta jasangarriagoa eraikitsera mugituko gaituzten istorioak kontatzeko gonbidapena da.

Datorren urtean ikus-entzunezko sortzaileekin batera mundu ikuspegi zabal bat sustatzeko aukera bila lanean jarraituko dugu.

2024/10/22 Urkulu urtegia | Aretxabaleta | Gipuzkoa
MLS MUNDUKIDE
Lasterketa Solidarioa
eman pausoa!



IX. Mundukide Lasterketa Solidarioa

Urriaren 20an ospatutako 'IX. Mundukide Lasterketa Solidarioa'n 287 partaidek eman zuten elkartasunaren aldeko pausoa. 46 talde aritu ziren 'x3' lasterketan, eta 121 lagunek zirkuitu ibiltariak gozatu zuten. Horrez gain, 28 gaztetxo lehiatu ziren gazte kategoriatan. Antolakuntzari dagokionez, Fagor Elektronika, Ikerlan, eta Athlon kooperatiben laguntza izan genuen. Ekimenaren kolaboratzaileak Laboral Kutxa, Arteaga Landetxea, Orbea, Columbus, Gastroteka 19.90, WCloc, Eroski, Arrasate Athletiko Taldea, Aretxabaletako udala, Konfekoop eta Ausolan izan ziren. Erakunde eta pertsona guzti hauei esker antolatu zen KLS ekimen solidarioa.

Mondragon Unibertsitatea - Munduari begirada bat

Ikasturtean zehar, Mundukide lankidetzan aritu da Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza eta Ingeniaritza fakultateekin. Enpresagintzan, lehen mailako 120 ikaslek mundu globalarekin lotutako gaiak landu zituzten hiru saiotan. Ingeniaritzan, bigarren mailako 25 ikaslek hautazko ikasgai batean parte hartu zuten, non mundu mailako datu eta estatistikak baliatuz, ekonomia, migrazioa eta osasuna bezalako gaiak landu zituzten.



Hedabideak

Gure gizartean pobreziaren bidegabekeria eta lankidetzaren balioa aldarrikatzeko asmoz 22 komunikabidetan 71 artikulua argitaratu dira eta irrati-telebistatan 20 elkarrizketa egin dira. Horretaz gain albiste buletina zabaldu dugu, hilero 1.687 pertsona eta 37 erakundek jaso dutena.

Buletina jasotzeko www.mundukide.org helbidean duzu izena emateko aukera.

Hitzaldiak

Programen, munduaren egoeraren eta lankidetzaren berri emateko hainbat hitzaldi eman ditugu: Arrasateko Arizmendi ikastolan, Bermeoko Sagrado Corazón ikastetxean, Arrasateko Harreman GGKEan eta Goienagusi elkarteetan, Iruñako UPNAko Agronomoetan, Mondragon Unibertsitateko hainbat graduetan, Eskoriatzako Olazar elkarteetan eta Oñatiko kultur etxean.

LANDUTAKO GAIK:

- MUNDUAREN EGOERA, GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK ETA ERANTZUKIZUN PERTSONALA.
- MOZAMBIKE IPARRALDEAN POBREZIA GAINDITZEKO NEKAZAL GARAPENERAKO AUKERAK SORTZEN.
- AFRIKA-EUROPA: ALDAKETA KLIMATIKOAREN NOR-NORI-NORK.
- NOLA ERAGITEN DU ZURE LAGUNTZAK MUNDUKIDE- KO PROGRAMETAN?
- BRASILGO MST ETA MUNDUKIDEREN ARTEKO LANKIDETZAREN OINARRIAK.

Hitzaldi bat antolatzeko, **613406924 telefonoan** jar zaitezke gurekin harremanetan.



DATU EKONOMIKOAK



DIRU SARRERAK	3.006.976 €	% 100
KOOPERATIBA LAGUNTZAILEAK	1.057.727 €	% 35
BAZKIDE LAGUNTZAILEAK	102.923 €	% 3
GGKE LAGUNTZAILEAK	56.939 €	% 2
ERAKUNDE PUBLIKOEN DIRULAGUNTZAK	1.125.230 €	% 37
BESTELAKO DIRULAGUNTZAK	36.151 €	% 0
BESTELAKO DIRU SARRERAK	284.329 €	% 9
AURREKO URTETAKO SARRERAK	343.677 €	% 11
GASTUAK	-3.006.976 €	% 100
LANKIDETZA PROGRAMAK	-2.693.287 €	% 89
• MOZAMBIKE	-980.296 €	%33
• BRASIL	-778.462 €	% 26
• KOLONBIA	-491.225 €	% 16
• EKUADOR	-181.994 €	% 6
• ETIOPIA	-166.712 €	% 6
INGURUMEN JASANGARRITASUNA	-54.314 €	% 2
OROKORRA	-20.340 €	% 1
SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	-90.930 €	% 3
KUDEAKETA GASTUAK	-239.702 €	% 8
EMAITZA	0 €	

Kontuak LKS Auditoresek auditatutakoak dira eta auditoriaren txostena

<https://mundukide.org/eu/nor-gara/gardentasuna/> helbidean dago ikusgai, urteko kontuekin batera.



PROGRAMAK

- MOZAMBIKE
- BRASIL
- KOLONBIA
- EKUADOR
- ETIOPIA
- INGURUGIROA
- BESTEAK

ARLOAK

- LANKIDETZA PROGRAMAK
- SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA
- KUDEAKETA